

Hemen zaude: [Sarrera](#) » [Aktualitatea](#) »

Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoiko bigarren finalaurrekoa jokatu da Azpeitian

Uztarria.eus | [Besterik](#) | ARTIKULUA

2016-09-05 11:05

Irailaren 17an izango da finalaurrekoa, Iraurgi Saskibaloi Taldearen tabernan. Afarian parte hartuko duten herritarrek izango dira epaileak, eta horretarako aurrez erosi beharko dira txartelak. Afarirako sarrerak salgai daude dagoeneko.

Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia antolatu du Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek bigarren urtez. Txapelketak hiru finalaurreko eta finala izango ditu, eta bigarren finalaurrekoa Azpeitian izango da, irailaren 17an. Euskal Herriko hainbat sagardotegietako sagardoak izango dira lehiaketan eta afaltzera inguratzen diren pertsonak izango dira epaileak, horiek izango baitira sagardoak dastatu eta puntuatuko dituztenak. Horiek ez dute jakingo zein sagardotegitako sagardoa ari diren dastatzen.

Epaile lanetan aritu nahi duten herritarrek afarirako txartelak aldeztu aurretik erosi beharko dituzte Iraurgi Saskibaloi Taldeko tabernan, Añota sagardotegian eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko egoitzan. Txartelak salgai daude dagoeneko, 25 eurotan. Honakoa izango da afariko menua: Basatxerri lontxeatua, Eusko Label arrautzekin egindako bakailao tortilla, Lumagorri baserriko oilaskoa eta Azpeitiko hainbat baserrietako Idiazabal gazta.

Finalaurrekoak Ordizian, Azpeitian eta Zarautzen izango dira eta finala Andoainen.

Bidali:



Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

Sartu

»» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)



Twitter-ekin



Facebook-ekin

Bestarik

- Autobus zerbitzu bereziak jarriko dituzte Zarauzko Euskal Jaietatik itzultzeko
- Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoiko bigarren finalaurrekoa jokatu da Azpeitian
- 100 urte bete ditu Joxepa Mendizabalek
- Done Jakue bideko geldialdia, asto eta guzti, Udal liburutegian
- Bihotz-biriken suspertze eta lehen sorospen ikastaroak emango ditu DYAk irailean
- 4G teknologiaren instalazioa dela eta, arazoak izan daitezke telebistaren seinalea hartzeko
- Hasi dira Go!azen telesailaren grabaketak Esklabetan
- Ez da azokarik izango abuztuaren 2an
- Go!azen telesaila grabatuko dute Esklabetan
- Abian da Orkatx Kultur Elkartearen 'Klik' argazki lehiaketa

|| uztarria ||

Publizitatea

uztarria.eus: Uztarria Komunikazio Taldea

Perez Arregi 1 behea 20730 Azpeitia

Harremanetarako: [kontaktu formularioa](#), **e-posta:** [uztarria\[a bildua\]uztarria.com](mailto:uztarria[a bildua]uztarria.com) **telefonoa:** 943150358

[Estatistikak](#)

Babesleak



Azpeitiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Uztarriak ez du bere gain hartzen webgunean adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



